


Euskal AEko BPGk urte arteko %2,9ko hazkundera izan zuen 2017ko bigarren hiruhilekoan

Enplegua jarduera adar guztietan gehitu da; %2,2 urte artean

2017ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %2,9 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. 2017ko lehen hiruhilekoaren aldean, %0,9ko gehikuntza, aurrekoan baino bi hamarren gehiago.

2017ko uztailaren 28ko Kontuen Aurrerapenean urte arteko hazkunde bera aurreikusten zen.

BPGren urte arteko aldakuntza-tasa. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskaintzaren ikuspegitik, 2017ko bigarren hiruhileko BPGren urte arteko hazkundera jarduera-sektore guztiei zor zaie, lehen sektoreari izan ezik.

Industria, bigarren hiruhilekoan, %2,3 gehitu da urte artean; lehenengoan baino hiru hamarren gehiago. Urte arteko honek puntu bateko gehikuntza dakar hiruhileko artean. Manufaktura industrian %2,8ko gehikuntza urte artean, %0,6 hiruhileko artean.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015	2016	2016			2017	
			II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	13,4	1,6	2,8	-0,7	-7,3	2,6	-2,7
INDUSTRIA ETA ENERGIA	3,9	3,3	2,4	2,9	3,0	2,0	2,3
Manufaktura-industria	4,7	3,5	2,6	3,1	3,3	2,0	2,8
ERAIKUNTZA	0,5	1,6	2,7	1,9	1,9	2,1	2,0
ZERBITZUAK	2,9	3,2	3,4	3,1	3,1	3,1	3,2
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,5	3,6	3,9	3,7	3,5	3,7	3,9
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,5	2,4	2,4	2,4	2,7	2,6	2,7
Gainerako zerbitzuak	2,0	3,3	3,6	3,0	3,0	3,0	2,9
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	3,1	3,1	3,1	3,0	2,9	2,8	2,9
PRODUKTUEN GAINENKO ZERGA GARBIAK	1,1	3,1	3,2	2,9	3,1	3,0	3,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	2,9	3,1	3,2	3,0	2,9	2,8	2,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Zerbitzuetan urte arteko %3,2ko eta hiruhileko arteko %1,1eko hazkundeak. Zerbitzuak %3,2 gehitu dira urte artean; azpisektore guztiak positiboan baina indar ezberdinez: **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %3,9; **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) %2,9; **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,7.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016			2017	
	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	-6,9	0,0	-11,7	24,8	-11,7
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,7	1,4	0,8	-0,9	1,0
Manufaktura-industria	-0,2	1,5	0,5	0,2	0,6
ERAIKUNTZA	0,1	-0,2	4,6	-2,3	0,0
ZERBITZUAK	1,0	0,4	0,3	1,3	1,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,8	0,5	1,5	0,9	1,0
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,6	0,3	-1,6	2,3	1,8
Gainerako zerbitzuak	0,9	0,5	0,5	1,1	0,8
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,8	0,6	0,6	0,8	0,9
PRODUKTUEN GAINENKO ZERGA GARBIAK	1,0	0,6	1,1	0,3	1,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,8	0,6	0,6	0,7	0,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Hiruhileko artean, **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %1,8ko gehikuntza; Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioak %1,0; **Gainerako zerbitzuak** %0,8.

Eraikuntzan %2,0ko gehikuntza urte artean, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Hiruhileko artean, %0,0.

Sektore-agregatuaren joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera positiboa ekarri du (%2,9); 2017ko lehen hiruhilekoan baino hamarren bat handiagoa. Hiruhileko artean %0,9ko hazkundera.

Eskariaren aldetik, bi gauza aipagarri BPGri buruz. %2,7ko hazkundera Barne Eskarian. Bi osagaiak (Azken kontsumoko gastua, Kapital eraketa gordina) positiboan, apalago aurreko hiruhilekoan baino.

Kanpo sektorean: esportazioak %1,7 gehitu; inportazioak %1,4.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuan (Kontsumo Pribatua) %3,0ko gehikuntza urte artean, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. Hiruhileko arteko tasa, %1,9; aurreko hiruhilekoaren gainetik.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015	2016	2016			2017	
			II	III	IV	I	II
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	2,8	3,0	3,2	2,7	2,9	2,9	2,7
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	3,1	3,1	3,4	3,1	2,9	3,0	3,0
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	1,8	2,2	2,7	0,8	3,0	2,5	1,2
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	2,8	3,3	3,7	3,1	3,2	2,9	2,5
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	6,5	7,5	7,0	6,1	6,6	4,9	4,0
Gainerako kapital-eraketa gordina	1,2	1,4	2,2	1,6	1,6	1,9	1,8
BARNE-ESKARIA	2,8	3,0	3,3	2,7	3,0	2,9	2,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	0,6	2,2	3,0	1,6	0,3	0,7	1,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0,6	2,2	3,2	1,3	0,4	0,9	1,4
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	2,9	3,1	3,2	3,0	2,9	2,8	2,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Kontsumo Publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua) %1,2 gehitu urte artean eta %4,8 jaitsi hiruhileko artean.

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetako) %2,7 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,5eko hazkundera.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %2,5 gehitu da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago.

Berriz ere inbertsioaren jokaera indar ezberdindun bi bilakaeratan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %4,0 gehitu da urte artean, lehen hiruhilekoan baino gutxiago. Urte arteko honek %0,2ko jaitsiera ekarri du aurreko hiruhilekoaren aldean. Kapital eraketa gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- %1,8ko gehikuntza urte artean, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago.

Guztira, **Barne Eskaria** %2,7 gehitu da.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016			2017	
	II	III	IV	I	II
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,7	0,1	0,3	1,8	0,5
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	1,8	0,3	0,2	0,6	1,9
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	-3,7	-1,1	1,0	6,4	-4,8
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	1,1	0,4	1,9	-0,5	0,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,6	3,1	0,4	0,7	-0,2
Gainerako kapital-eraketa gordina	1,3	-0,8	2,6	-1,1	1,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	5,9	-2,0	-2,1	-0,8	6,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	5,5	-2,6	-1,9	0,2	6,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,8	0,6	0,6	0,7	0,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua (**lanpostuak Dedikazio Osoko Baliokidetzan neurtuta**) %2,2 gehitu da urte artean; ia 20.000 lanpostu gehiago. 2017ko lehen hiruhilekoaren aldean, urte arteko honek %0,8ko hazkundea dakar.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, enplegua gehitu egin da jarduera adar guztietan. Aurreko hiruhilekoetan bezala, Zerbitzuetan gehitu da gehien enplegua urte artean, %2,3.

Industrian %1,9 gehitu da enplegua urte artean; eta eraikuntzan %1,8. Lehen sektorean %0,5 urte artean.

Hiruhileko artean: industrian %+0,4; zerbitzuetan %+0,9; lehen sektorean %+7,1; eraikuntzan aldaketarik ez.

Urte artean, BPG %3,1 gehitu da Araban; %2,9 Bizkaian; Gipuzkoan %2,7. Hiruhileko artean, Araba eta Gipuzkoa %1,0; Bizkaiak %0,8.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62